

## Umeen astea

Folklore egun bat egitea nahikoa ez zala ta, kultura programa bat eratu zan umeentzat, maiatzaren azken astean. Eibarko eskoletako lau ume taldek, euskal koru-kanta saio polit bat eskaini\* eben asteartean\*. Asteazkenean\*, inguruko ikastoletako taldeen aktuazinoa: antzerkitxoak, bertso, ipuin eta kanta. Larunbat\* arratsalde, Untzaga plazan, "egin dakizuna" edo holako zerbait deitu geinskion jaitxo bat eratu zan: edozein ume jarri eitekean mikrofono aurrean, berak ekiana erakusteko, kanta, ipuin nahiz bertso. Espektakulu honeen publikoa, umeak bakarrik. Iru funtzinoetan, aktore legez parte artu eta zerbait egin eban ume bakoitzari ipuin liburu bat emon jakon sari moduan. Umeen dibujo erakusketa bat bere egin zan Club Deportivo-ko saloian.

## Umeen eguna

Maiatzaren azken igandean\* ospatu zan Umeen Euskal Jaia. 24 folklore talde etorri jakuzan. Talde eta karrozen ibilaldia, ederto egon zan. Hona hemen zein karrozatzuk\* presentatu ziran: "Zuloagari" Arrate Elkartearena, eta "Ferra-toki" ALFA-ko eskoletakoa (lehenen eta bigarren sarituak); "Euskera eskoletara" ikurpean ikastola bat presentatu eben Mogel ikastolakoak, eta Karmeldarrak "Euskal Literaturaren Zazpiak Bat" eritxona. Zorionak sarituei; baina areago\*, karrozen lehiaketa\* barritu nahian, zerbait bizi eta mamintsurik eskaini\* dozueno. Datorren urterako, organizazinoa ahalegindu egin behar litzake, karroza presentatzaileei bidea erakutsiz; eta, beharbada, klasifikazinoko erregelamentua barritu, motiboari tarte gehiago emonaz. Arratsaldean, dantzari eta txistulari taldeen jardunaldia. Akaberan, "Gernikako Arbola" eta "Agur Jaunk".

S. Basauri